

Kalitate-indizeak euskarazko kazetaritzan

Alazne Aiestaran, Beatriz Zabalondo, Antxoka Agirre,
Txema Ramirez de la Piscina eta Maria González Gorosarri
EHUko irakasle eta ikertzaileak (UPV/EHU)

UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko HGH ikerketa-taldeak (Hedabideak, Gizartea eta Hezkuntza) azken bi urteotan egindako azterketa baten emaitzak biltzen ditu lan honek. Alegia, euskarazko kazetaritzan erreferentzia diren agerkarietako albisteen kalitatea neurtzen duen ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboaren datuak. Albisteen kalitatea neurtzeko hiru parametro hartu dira kontuan: albistearen hautaketarekin zerikusia duten aldagaiak, albistearen lanketarekin zerikusia duten aldagaiak eta gizarte-ekarpenarekin zerikusia dutenak. *Euskaldunon Egunkaria-Berria*, *Argia* eta *Goienaren* pape-reko edizioak eta edizio digitalak aztertu dira 2001-2013 artean eta Europako erreferentziarako bost egunkariarekin —*Financial Times*, *Le Monde*, *Frankfurter Allgemeine Zeitung*, *Corriere della Sera*, eta *El País* kazetekin— alderatu dira lortutako emaitzak. Denis McQuail-ek (1992) garatu zuen *media performance* («hedabideen jarduera») kontzeptuan oinarritu da aplikatu den ikerketa-metodoa. Erdietsitako emaitzek erakusten dute, besteak beste, kalitatearen beharazko joera bai euskal prentsan baita Europako prentsan ere.

GAKO-HITZAK: Kalitatezko kazetaritza · Albisteen kalitatea · Euskal prentsa · Europako prentsa.

Quality Indexes Applied to Basque Journalism

This work is based on a study conducted over the last two years by the University of the Basque Country HGH (Hedabideak, Gizartea eta Hezkuntza - Media, Society and Education) research team. It contains data from quantitative and qualitative research analysing the quality of leading Basque-language news publications. The print and on-line editions of *Euskaldunon Egunkaria-Berria*, *Argia* and *Goiena* were analysed between 2001 and 2013 and the findings compared against those of five leading European newspapers —*Financial Times*, *Le Monde*, *Frankfurter Allgemeine Zeitung*, *Corriere della Sera*, and *El País*—. The research method applied was based on the “media performance” concept developed by Denis McQuail (1992). The findings show that, among other things, as a general trend quality has fallen in the case of both the Basque-language and the European press.

KEY WORDS: Quality Journalism · News quality · Basque press · European media.

Jasotze-data: 2014-03-11. *Onartze-data:* 2014-05-16

1. Euskarazko hedabideen sektorea¹

Euskara Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa den arren², euskal prentsa modernoa oso gaztea da. Izan ere, estaturik ez duen hizkuntza hau berandu arautu zen, inguruan dituen hizkuntzekin (frantsesa eta gaztelania) alderatuta. Horixe izan daiteke, beste arrazoi batzuen artean, euskarazko prentsaren agerpena atzeratu zuen zioetako bat. Mugarría izan zen *Uscal-Herrico Gasetá*, euskara hutsez argitaratu zen lehenengo kazeta (Díaz Noci, 2012: 84). Haren hastapenetatik arazo ekonomikoek baldintzatu dute euskal kazetaritza eta jende askoren boluntario-lanari esker heldu da gaur egunera arte. Ezin ahatz baitaiteke euskarazko kazetaritzaren gibelean borondatezko lan handia egon dela beti eta dagoela gaur egun ere.

Euskal Herrian euskara hutsezko 110 hedabide zeuden 2009an. 2014ra bitartean, euskarazko hedabideen kopuruak % 8 egin du behera, eta horrek esan nahi du, 2014aren hasieran, 2009an baino 10 hedabide gutxiago dagoela orotara. Prentsak nozitu du gehien galera hori (Zabaleta *et al.*, 2014, 108).

EITB erakunde publikoa alde batera utzita, gainerako euskarazko hedabideak pribatuak dira gaur egun ere, eta, sektore pribatu horren barnean, 80ko hamarkadan sortu eta 90eko hamarkadan indarrez hazi zen euskarazko tokiko hedabideen sektoreak kuantitatiboki garrantzia handia du. Tokikomek³ «Euskal Hedabideen etxea» dokumentuan, Eneko Bidegainen egindako lanean oinarrituta, tokian tokiko 86⁴ hedabide zenbatu zituen 2013an, honela sailkatuta: 48 idatzizko agerkari (aldizkari, astekari eta egunkari), 20 irrati; 7 telebista, 9 Interneteko agerkari.

Euskarazko hedabideentzat 2012. urtea mugarría izan da, hedabide pribatuen sektorea indartze aldera bi ekimen nagusi sortu baitira. Alde batetik, udaberrian, euskal hedabideen sektoreak garatu duen elkartzeko-dinamikaren ondotik Tokikom sortu zen, esparru komunak indartzeko eta integrazio posiblea aztertzeko (Zenbait autore, 2013: 5). Bestetik, udazkenean, Hekimen sortu zen: herri-ekimeneko Euskal Hedabideen Elkarteá. Bertan, publikoak ez diren eta euskara hutsean ari diren 50 hedabidetik gora bildu dira, gizartearen eta instituzioen aurrean ahots bateratua izateko eta komunikabide-esparru indartsua lortzeko helburuarekin (Sustatu, 2012).

1. Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak diruz lagundutako *Evolution of the assessed News Quality in European reference media (2000-2014)* ikerketa-proiektuaren (CSO 2011-23237) zati bat da lan hau. UPV/EHUK ofizialki onartutako (GIU 11/04) HGH (Hedabideak, Gizarteá eta Hezkuntza) ikerketa-taldea da lanaren egilea. UPV/EHUK ere proiektua diruz lagundu du.

2. «Oro har, onaturik dago hizkuntza hau egungo lurraldean kokaturik zegoela Neolitikotan, hau da, gutxienez K.A. 2.000. urtean. Azken ikerketek azken glaziazio garaian kokatzen dute, Europa Mendebaleko biztanleak kontinentearen hego-mendebaldean kokatu ziren garaian. Inbasio indoeuropearren aurretiko hizkuntza bati buruz ari garenez ez zaio ahaiderik ezagutzen» (Arana *et al.*, 2008: 5).

3. Tokikom da tokiko hedabideen sektorea ardatzeko ekimena. 30 tokiko hedabide dira bazkide eta marka bateratu horrekin, euren esparrutik kanpora erreferentzialtasuna bilatzen du Tokikomek.

4. *Goiena* talde multimedia hiru aldiz zenbatu da. Aldizkarien atalean, telebistaren atalean eta edizio digitalen atalean. Horixe da hedabide guztien batuketak 86 kopuruarekin bat ez egitearen arrazoia.

2. Aurretik egindako ikerketak

Kalitateak betidanik piztu duen interesa handia bada ere, atal horretan egin diren ekarpen zientifikoak barreiatuta agertzen dira argitaratu diren hizkuntzaren eta toki geografikoaren arabera. Denis McQuailek 1992an garatu zuen *media performance* (hedabideen jarduera) kontzeptua ezinbesteko erreferentzia izan da lan honetan. Eskandinaviako autoreak aitzindari izan ziren kalitatearen inguruan egindako ikerketetan eta *informativity* kontzeptua sortu zuten. Aldi berean, AEBn ikuspegi komertzialak gidatu zuen ikerketen norabidea. Horregatik, errentagarritasunaren bikaintasuna nabarmentzen zen. Hego Amerikan VAP (*Valor Agregado Periodístico*) metodoa sortu dute kazetaritza-lanaren kalitatea neurtzeko (Pellegrini eta Múgica, 2006: 11-28). Izan ere, VAP metodoa bi fasetan oinarritzen da: albistearen hautaketa (*gatekeeping*) eta albistearen sorkuntza (*newsmaking*) (García, Bezunartea eta Rodríguez, 2013: 41). Alemaniako komunitate zientifikoak, berriz, kalitateari buruzko eztabaidaren marko teorikoa eta hainbat proposamen metodologiko artikulatu zituen. Alemaniarrak *professionalism* terminoari eman zioten lehentasuna (González Gorosarri, 2011: 33-235). Ildo horri jarraituz, beste autore batzuek kazetaritzaren kalitatea antolaketa-ikuspegiarekin lotu dute. Hots, kazetarien lan- eta ekonomia-baldintzek produktuaren kalitatean duten eraginarekin (Gripsrud eta Weibull, 2010; O'Donnell *et al.*, 2012; Picard, 2004).

Egunero hedabideek kaleratzen dituzten albisteen kalitatearen inguruan profesionalek eta akademikoek ardura erakusten duten arren, ildo horretan burutu diren ikerketa zorrotz eta zehatzak ez dira ugariak. Hona hemen aipamen gisa horietako batzuk: John Zaller (1999) eta Robert Butchek egindakoa (2008) UCLn, Esther Thorsonen (2001) Missouriko Unibertsitatean burutakoa, Argentinan Gabriel Michik (2010) egindakoa, edota gaiarekiko ardura erakutsi duten erakundeen lanak, hala nola Harvard-eko Unibertsitateko The Berkman Center for Internet & Society eta Amsterdamgo European Journalism Centerren egindakoak. 2012ko uztailean Sydneyko Unibertsitateko Penny O'Donnell eta David McKnightek burutako ikerketak (*Journalism at the speed of bytes. Australian newspapers in the 21st century*) ohartarazten duenez, teknologia berriek eskatzen duten bat-batekotasunak informazio-kalitatean ondorioak izan ditzake.

Ez da erraza kazetaritzaren kalitatearen definizio bakarra ematea eta nekez izan daiteke unibertsala, baina badaude nahikoa elementu aukera eskaintzen dutenak munduko edozein tokitako profesional zintzoak eta herritar demokratikoak ados jar daitezzen kazetaritza ona zer den eta zertarako balio duen erabakitzeko orduan (Gz. Mompert, 2013: 9).

Informazioaren kalitatea adierazteko erabiltzen den terminologia zabala bada ere, hiru dira eremu honetan nabarmendu diren terminoak: kazetaritzaren kalitatea (*journalistic quality*), albisteen kalitatea (*news quality*) eta albisteen edukien kalitatea (*news content quality*). Informazioaren hornikuntzaren bikaintasunari buruz aritzeko *Journalistic quality* da zenbait autorek⁵ gehien erabili duten terminoa. Izan ere, kalitatearen kudeaketarekin zerikusia duten arloak ere aipatzen ditu. Informazioen edukiez eta ezaugarriez gain, bestelako alderdi batzuk kontuan

5. Hala nola Pellegrini, Silvia eta Múgica, M^a Constanza eta Schirmer, Stefan.

hartzeko beharra azpimarratzen du Vehlow-ek (2006) erabilitako *News quality* kontzeptuak. Zentzu horretan, eta Europako ikuspegitik begiratuta, *media performance* terminoak enfasi berezia jartzen du albistearen erantzukizun sozialean. Bucher eta Altmeppen-ek (2003) erabilitako *news content quality* kontzeptua hasieran sortu zen albiste-agentziek emandako informazioaren bikaintasuna izendatzeko. Edozein modutan ere, egungo literatur akademikoan modu adostuan eta oso zabal dabilen *news quality* terminoa erabili ohi da lan honetan aztergai den albisteen kalitatea izendatzeko.

Euskal Herrira jauzi eginez, euskarazko hedabideen kalitatearen inguruko hausnarketa eta ardura ez da atzo goizeko kontua. 2004. urtean Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua antolatu zuen lan-taldeak *Kazetaritzaren oraina eta geroa* liburuko ondorioetan honako hau jaso zuen: «Euskarazko kazetaritzak aurrera egingo badu, kalitatezko gutxieneko estandar batzuk bermatzen direlako izango da. Imajinario kolektiboaren sortzaile garen heinean, ekoizten eta igortzen ditugun edukietan ere jarri behar dugu ardura. Eduki horiek, beraz, elkarbizitza bideratzen eta euskal komunitatearen kohesio soziokulturalaren mesedetan eragiten lagundu behar dute. Kalitatezkoa behar du izan, maila guztietan, euskarazko komunikazioak: produktuen eraketan, ekoizpen-prozesuan, banaketa-sisteman eta baita erabiltzen den hizkuntza-ereduan ere» (Zenbaiten artean, 2005: 447).

Euskarazko hedabideak ikertu dituzten lanak hainbat dira gure artean, (Arana *et al.*, 2000; Camacho, 2001; Zuberogoitia 2003; Aiestaran, 2007 eta 2010; Zabaleta, 2010; Zabalondo, 2011; Arana eta Zuberogoitia, 2012; Díaz Noci, 2012; Bidegain, 2013). Informazioaren kalitatea neurtu duten lanetan, baina, Maria Gonzalez Gorosarik 2011n irakurri zuen doktore-tesia da erreferentzietako bat. Egileak albisteen kalitatea neurtzeko metodologia garatu eta aurretik beste lan batzuetan balioztatutako eta frogatutako irizpideak bildu zituen.

3. Helburuak, hipotesiak eta iker-galderak

Euskal prentsaren hiru aktore nagusien (*Argia*, *Berría* eta *Goiena*) eta Europako erreferentziazko bost egunkariren kalitatearen inguruko azterketen emaitzak alderatzea da ikerketa honen xede nagusia. Europako emaitzak ikerketaren lehen fasean jaso eta zabaldu dira. Euskarazko prentsaren ingurukoak azalduko dira hemen zabal, baina Europako kazetek erdietsitako emaitzekin egin daitekeen alderaketan ere sakonduko da. Papereko edizioak eta edizio digitalak aztertuko dira.

Hauxe da ikerketaren abiaburua: euskal kazetaritza kalitate-maila duinean dagoela deritzogu. Era berean uste dugu hizkuntza handietako kazeten emaitzekin alderatzea hizkuntza gutxituetako kazetaritza-moldeen ahulguneak ezagutzeko ere oso baliagarria izan daitekeela; baita alderantziz ere: hedapen urriko hizkuntzan sorturiko kazetaritzak hizkuntza indartsuenetan lantzen denari ekarpenik egin liezaiokeen ere ikusi nahi da.

Helburu horiek gauzatzeko honako lan hipotesi (**H**) eta iker-galdera edo *Research Question*-etatik (*RQ*) abiatu da taldea:

H1. XXI. mendean prentsa idatziak bizi duen garapen teknologikoak albistearen hautaketa- eta lanketa-prozesuen azelerazio bat ekarri du, eta horrek eskaintzen den informazioaren kalitatean eragina izan dezake.

Hona lehen hipotesiari loturiko iker-galderak (RQ):

RQ1- Nolako bilakaera izan du euskarazko prentsaren barruan informazioaren kalitateak 2001 eta 2012 urteen artean?

RQ2- Alde handiak nabaritzen al dira hedabide batetik bestera?

RQ3- Lantzen den albiste motak (azalekoa, formatu handikoa, bigarren mailakoa) ba al du eragin nabarmenik kalitate-indize horretan?

H2. Edukien digitalizazioak, idatziaz gain produktu multimedia bat ekoitzi beharrik, edizio digitalen berehalakotasunari erantzun-beharrarekin batera, are gehiago azkartu ditu hautaketa- eta lanketa-prozesuak. Egoera horrek ere eragina izan dezake eskaintzen den informazioaren kalitatean.

Bigarren hipotesiari loturiko iker-galderak (RQ):

RQ4- Zer alde daude aztertutako egunkarien artean?

RQ5- 2013ko azterketa sinkronikoaren emaitzak eta 2001-2012 bitarteko azterketa diakronikoarenak koherenteak al dira euren artean?

H3. Euskaraz eta gisako hizkuntza gutxituetan sortzen den kazetaritzak maila duina eman dezake askoz ere merkatu zabalagoak dituzten hizkuntzetan sorturiko kazetaritzaren aldean. Hizkuntza gutxituentzat oso interesgarriak dira alderaketa horiek, hobetu beharreko alderdiak erakutsiko dizkietelako. Eta alderantzizko norabidean ere izan dezakete interesa, alegia, litekeena da hizkuntza gutxituetako kazetaritzak ere bere ekarpenak egitea handien-plazara.

Hirugarren hipotesiari loturiko iker-galderak (RQ):

RQ6- Zer kalitate-maila erakusten dute euskarazko hedabideek Europan erreferentziazkoak diren hedabideekin alderatuta?

RQ7- Zein gabezia nagusi erakusten ditu euskarazko kazetaritzaren kalitateak?

RQ8- Zerbaitetan ikusten al da euskal kazetaritza hizkuntza indartsuetako kazetaritzaren kalitatearen gainetik agertzen dela?

4. Metodologia

Lan hau bideratu duen ikerketa-taldeak metodologia propioa erabili du, azken hamarkadetan egin diren ekarpen nagusiak kontuan hartuz. Batez ere, literatura germaniar eta anglosaxoitik jasotako ikerketetan (Bucher & Altmerppen, 2003; Maurer, 2005; Vehlow, 2006) oinarritu da, zeinetan metodo oso berritzaileak aplikatzen diren.

Denis McQuailek plazaratutako *media performance* kontzeptutik (1992) abiatuz *crossmedia*⁶ analisisa gauzatu nahi izan da termino profesionalean. Oinarri-

6. *Professionalism* kontzeptuaren inguruan sortu den Alemaniako ikerketa-lerrotik gertu dagoena.

oinarrian jaso den ideia nagusia da kalitate-parametro altuen exijentzia konbinatu beharra dagoela komunikabideek duten ardura sozialarekin (McQuail, 1992: 66-68).

Eratu den metodologiak alderdi kualitatibo-kuantitatiboak konbinatzen ditu eta parametro egiaztagarri eta neurgarriak finkatzen ditu, informazio jakin baten kalitatea —papereko informazioa edo Internetekoa— zorroztasunez zehazteko. Aztertutako itemen honako datuak eskaintzen ditu: formatuaren kalitatearenak (aspektu teknikoak, estetikoak eta funtzional edo *lapsus clavis*-ak⁷, esaterako), eta edukien kalitatearenak (hautaketa prozesua — *gatekeeping* kontzeptuari lotua—, albistearen lanketa-prozesua —*newsmaking* kontzeptuari lotua— eta gizarte-ekarpena). Formatuaren alderdiari dagozkion aldagaiak banan-banan zenbatu eta deskribatu dira; ez dira indize edo ratio batean sartu. Edukiaren kalitatearenak, ostera, 0-10 bitarteko indize batean neurtu dira: hori izango da albistearen berezko kalitate-indizea.

4.1. Lan-fitxa

HGH Taldeak edukien kalitatea neurtzeko diseinatu duen fitxa bi zutabetan aurkezten dugu hemen: ezkerreko zutabea, neurtutako kazetaritza-aldagaiak —kontzeptuak—, eta eskuinean, aldagaiari lotutako parametroak eta bakoitzari esleitutako balioa.

Fitxaren ezkerreko zutabea, nabarmenduta daude albistegintzari dagozkion hiru atal edo indize nagusiak: hautaketa, lanketa eta gizarte-ekarpena. Hurrenez hurren, 2,5 puntu, 5 puntu eta 2,5 puntuko ratioa esleitu zaio bakoitzari. **Hautaketa-prozesuan** bost aspektu edo aldagai bereizten dira. Horietako bakoitza gehienez 0,5 punturekin ebaluatzen da: **informazioaren jatorriaren zehaztapena**, **iturrien nortasuna**, **albistearen gertagarritasuna** (gertaerak edo adierazpenak diren), **gaurkotasun-maila** eta **albistegarritasuna** (berriaren interes-maila). **Lanketa-prozesuak** ere bost aldagai ditu; bakoitza, gehienez, puntu batekin balora daiteke: **zehaztasuna** (titularraren eta berriaren muinaren arteko lotura), **sakontasuna** (5Wen presentzia), **ikuspuntu ezberdinen presentzia**, **informazio-elementu osagarrien** (argazki, infografia, bideo...) **notakotasuna** eta **kazetaritza-hizkeraren zuzentasuna** (testuan akatsak). Azkenik, **ekarpen sozialari** dagokion atalak beste bost aldagai biltzen ditu, gehienez 0,5 punturekin neur daitezkeenak: **aginteari kontrola**⁸, **eztabaida publikoaren sustapena**⁹, **giza duintasunari errespetua**¹⁰,

7. Ulermena tratatzen duten akats ez-gramatikalak.

8. Adierazle honen helburua da kazetak aginte publiko eta pribatuei neurria hartzeko hedabideen eginkizun zilegia gauzatzeko duen neurtzea.

9. Albisteak eztabaida publikoa abiatu edo erraztu egiten duen kontuan hartuko da, hau da, ea eraikitzailea den. Informazioak gizartearen kohesioa du helburu, konponbide zibikoa seinatzen du.

Informazioaren erabilgarritasuna kontuan hartuko da: eztabaida publikoan parte hartzeko eta berezko iritzi independentea osatzeko elementuak ematen ditu.

10. Albisteak bizitza pribatua eta duintasuna bermatu behar ditu. Berme horrek bi adiera ditu: albistea bera eta informazioa bilatzeko bide etikoak. Jakiterik ez dagoenean, egunkariaren alde jokatu dugu balioa esleitzean. Era berean, duintasuna bermatzen ez duen lehen elementua nahikoa izango da puntuazio negatiboa esleitzeko.

egunkaria publikatzen den herrialdean gutxiengoak diren **erreferentzia kulturalak**¹¹ egitea eta **gizarte-bazterkeria borrokatzea**¹².

Fitxaren eskuineko zutabeen ikusgai daude kalitate-aldagaiei esleitutako parametro neurgarriak eta bakoitzak har dezakeen baliorik altuena.

KALITATE INDIZEA	AITORTUTAKO BALIOAK
HAUTAKETA	
Jatorriaren zehaztapena	Aipatua (0,5); Ondorioztatuta (0,25); Aipatu gabea (0)
Iturrien nortasuna	Dokumentuak (0,5); Adituak (0,4); Identifikatuak (0,3); Zeharka (0,1); Gertakizuna (0,5); Adierazpenak (0,25); Iragarpena (0)
Gertaera	Sarekoak: Azken bi orduetan (0,5); Sarekoak: Atzo, gaur, bihar (0,4); Prentsa: Atzo, gaur, bihar (0,5); 2-7 egun (0,25); Astebete baino gehiago (0,1); Datarik gabekoa (0)
Gaurkotasuna	Gizartearentzako ondorioak (0,5); Norbanakoentzako ondorioak (0,25); Sasi-albistea (0)
Albistegaitasuna	
LANKETA	
Zehaztasuna	Albistea laburtu / aurreratu (1); Alde / ezaugarri bat (0,5); Anbigua / engainagarria (0)
Sakontasuna	3hiperesteka + 5W eta 'nondik' (1); 3hiperesteka + 5W (0,8); 5W eta 'nondik' (Sarean 0,6; Paperean 1); 5W (0,5); 4W (0)
Ikuspegi kopurua	3 ikuspegi (1); 2 ikuspegi (0,5); Ikuspegi 1, arrazoitua (0,25); Ikuspegi 1, arrazoitu barik (0)
Informazio-elementu osagarriak	Oso esanguratsuak (4-5W) (0,5); Esanguratsuak (2-3W) (0,25); Betelana (1W) (0,1); Ez du informazio-elementurik (0); Ez dator bat (-0,25)
Alde artistikoa	Oso landua (0,5); Nahiko landua (0,25); Arrunta (0,1); Ez du informazio-elementurik (0); Akats arina (-0,25); Akats larria (-0,5); Oso akats larria (-0,75)
Hizkera: kazetaritza estiloa	Argia eta zehatza (1); 1. kolpean ulertu ez edo arrunkeariak (0); Idazkera ez-profesionala (-0,5); Eskasa (-1)
Akatsak: titulua, aurretitulua, azpititulua (-1)	
Akatsak: leihoak, argazki oina, tartekia (-0,5)	
Akatsak: testua (-0,25)	
GIZARTE-EKARPENA	
Aginteari kontrola	Egiten du (0,5); Ez du egiten (0); Agintearen alde egiten du (-0,5)
Eztabaida publikoa	Bai (0,5); Ez (0); Zatitzailea (-0,5)
Duintasuna bermatzea	Duintasuna bermatzen du (0,5); Kaltetzen du (-0,5); Ez bata ez bestea (0)
Kultur aniztasuna	Bertako edo munduko kulturak (0,5); Erreferentziarik ez (0); Kultura asimilatzailea (-0,5)
Bazterkeria borrokatzea	Borrokatzen du (0,5); Ez du borrokatzen (0); Irainak edo mesprebuak (-0,5)
Hautaketa (2,5 puntu)	
Lanketa (5 puntu)	
Gizarte-ekarpena (2,5 puntu)	
GUZTIRA	
OHARRAK	

Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

11. Bi kontu saritu dira: bertako kultura babesteko ahalegina edota kulturen arteko berdintasun-harremana sustatzea. Bertako kultura hedabideak informatiboki ase gura duen komunitatearena izango da. Era berean, hedabideei kultura asimilatzaileekiko distantzia hartzeko eskatuko zaie.

12. Honako albisteak saritu dira: informazio-jarioak eta kazetagitzaiek bazter utzi ohi dituen taldeei ikusgarritasuna ematen dietenak (albistean agertzea) edo taldeon inklusioa (normalizazioa) bultzatzen dutenak.

4.2. Ikerketaren laginketa

Albisteen kalitatea zehazteko ikerketa honetan erabilitako metodoa Kode Liburu batean bildu da; bertan datu-bilketaren aurreko prozesuan sorturiko zalantza guztiak argitzen dira. Bederatzi hilabetez luzatu ziren talde-bilera ugariaren emaitza izan zen eta 36 orriko dokumentu batean jaso da. Ikerketa guztian zehar oso baliagarria izan den *vademecum*a izan da.

Behin metodoa zehaztuta, bi adarretan egin da lana: Europako egunkariak aztertu dira, alde batetik, eta Euskal Herriko kazetak, bestetik.

	KAZETAK	Ikerketa diakronikoa (2001-2012) papera	Ikerketa sinkronikoa (2013) papera eta digitala
EUROPA	<i>Corriere</i> <i>Le Monde</i> <i>El Pais</i> <i>Allemagne ...</i> <i>Finantial</i> <i>Times</i>	Urteko aste konposatua = 84 egun 3 albiste/eguneko Guztira 1.137 item	Aste jarraitua= 3 aste: - Urtarrilak 23-29 - Otsailak 6-12 - Martxoak 13-19 Albiste nagusia edizio digitalean + albiste bera biharamuneko paperekoan Guztira 210 item
EUSKAL HERRIA	<i>Argia</i>	Lagin aleatorio sinplea Urte bakoitzeko 7 egun 84 item	Aste jarraitua= 3 aste: - Urtarrilak 23-29 - Otsailak 6-12 - Martxoak 13-19 Albiste nagusia edizio digitalean + albiste bera biharamuneko paperekoan Guztira 82 item
	<i>Berria</i>	6 eguneko aste konposatua 3 albiste/eguneko 164 item	
	<i>Goiena</i>	Lagin aleatorio sinplea urte bakoitzeko 7 egun 240 item	
	GUZTIRA	488 item	

Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Europar erreferentziakotzat jotzen diren bost egunkari aztertu dira¹³: *El País* (EP), *Le Monde* (LM), *Frankfurter Allgemeine Zeitung* (FAZ), *Corriere della Sera* (CDS) eta *Financial Times* (FT)¹⁴. Egunkarien lagina osatzeko aste konposatua erabili da. Izan ere, hainbat ikerketak frogatu dute aste konposatua dela fidaga-

13. Artikulu hau sinatzen dugunoz gain, HGH ikerketa-taldeak azpimarratu nahi du landa-lana egiteko ezinbesteko izan den honako ikertzaileen laguntza: UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio Saileko irakasle eta doktore Estefanía Jiménezena, Poitierseko Unibertsitateko Hizkuntza eta Letren Fakultateko irakasle titular eta kazetaritzan doktore den Ludivine Thuverezena eta Bartzelonako UPF-ko (Universidad Pompeu Fabra) Komunikazio Sailean ikertzaile pre-doktorala den Ilaria Di Bonitorena. *Financial Times*, *Le Monde* eta *Corriere della Sera* egunkarien datu-bilketa eta kodifikazioa beraiak egin zuten, hurrenez hurren.

14. IMH (Internationale Medienhilfe) aholkularitza-erakunde independente alemaniarraren arabera, bost horiek dira Europako itzal handieneko kazetak. Guztiak ere hamarkadetako esperientzia dute; *Financial Times*ek eta *Corriere de la Sera*k 100 urteko gorako ibilbidea dute.

rriena: «Riffe, Aust eta Lacy ikerleek, hiru lagin mota —lagin aleatorio sinplea, aste konposatua eta aste jarraia— horietako bakoitzetik lau lagin tamaina —7, 14, 21 eta 28 egunekoak— alderatu zituzten. Emaitzak oso argiak izan ziren: aste konposatuak beste biek baino fidagarritasun handiagoa lortu zuten» (Zabaleta, 1997: 200).

Hiru urratsetan egin da ikerketa hau: lehendabizi, papereko edizioen analisi diakronikoa egin da, 2001eko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31 bitartean. Hots, urte bakoitzeko aste konposatu bat osatu eta orotara 84 egunetako edizioak aztertu dira. Egunkari bakoitzean hiru albiste (azaleko nagusia, nagusi horren barruko garapena eta bigarren mailako beste albiste bat) ikertu dira. Guztira 1.137 albistek osatu dute lehen lagin hori¹⁵.

Papereko nahiz edizio digitalen azterketa sinkronikoa (2013an) egitea izan da analisiaren bigarren urratsa. Edizio digitalak aztertzeko ez da aste konposatuaren teknika erabili, ikerketa 2013ko Aste Santua (martxoaren 28a) baino lehen bukatu behar zelako. Modu horretan aste konposatu bakarra sor zitekeen eta emaitza fidagarriak ateratzeko lagin urriegia dela erabaki da. Horregatik, aste jarraituaren teknika erabiltzea hobetsi da, ausazko sinplea baino egokiagoa delako aste osoko egunak hartzeko. Izan ere, ausazko sinplea egokiagoa da asteen lagina hautatzeko, ez, ordea, egunen lagina aukeratzeko. Beste alde batetik, «aste jarraituak, nahiz eta maiz erabiliak izan, ez dira fidagarriak komunikabide baten sei hilabete edo gehiagoko eduki informatiboak ongi ezagutzeko» (Zabaleta, 1997:202). Gure unibertsoa hiru hilekoa izanik, aste jarraitua aukeratu da. Honako aste hauek osatu dute lagina: urtarrilaren 23tik 29ra, otsailaren 6tik 12ra eta martxoaren 13tik 19rakoak (kasu guztietan, bi datak barne). Aztergai ziren bost egunkariekin osatu da lagina. Erabilitako prozedura honakoa izan da: lehenengo, edizio digitaleko azaleko albiste nagusia aukeratu eta jaso¹⁶; bigarrenean, egunkariak papereko edizioan albiste berari eskainitako testua jaso, eta, azkenik, bi albisteak ikerketan erabilitako metodoarekin sakontasunean aztertu. Lagin osoa 210 itemek osatu dute.

Azken urratsean, 2013ko emaitzak ikerketa diakronikoan (2001-2012) lortutakoekin alderatu dira, betiere elementuak alderagarriak zirenean¹⁷.

Euskal prentsaren azterketak osatu du proiektuaren bigarren adarra. Lagina osatzeko teknika eta kalitatea neurtzeko metodo berak aplikatu dira. *Euskaldunon Egunkariaren* eta *Berriaren* kasuan, Europako prentsan erabilitako lagin bera eta data berak erabili dira, baina bietan sei eguneko aste konposatua osatu da zazpi

15. *Revista Latina de Comunicación Social* aldizkarian agertzen dira ikerketaren emaitzak: "Periodismo de calidad en tiempos de crisis: Un análisis de la evolución de la prensa europea de referencia (2001-2012)" izenburua duen artikuluan. Halaber, Dublinen 2013ko ekainaren 25etik 29ra izandako IAMCR International Association for Media Communication and Research kongresuan (Journalism Research and Education (JRE) sailean) aurkeztu ziren emaitzak. Onarturiko ponentziaren izenburua *Quality journalism in times of crisis: An analysis of the evolution of the European reference press (2001-2012)* izan zen.

16. Kazeta digitalak, aukeratutako egunean, 12:00etatik 16:00ak bitartean argitara emandako albiste nagusia.

17. Ikerketa honen emaitzak 2013ko uztailaren 18tik 19ra Malagan antolatutako ICA-AE/IC kongresuan erakutsi ziren. Aurkeztutako txostenaren izenburua: *¿Influye la digitalización en la crisis de confianza de la prensa? Estudio comparativo entre las ediciones electrónicas e impresas de cinco diarios europeos de referencia durante 2013.*

egunekoaren ordeaz, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berría* ez baitira astelehenetan kaleratzen. *Argia* eta *Goiena* aztertzeko, ordea, ezin izan da aste konposatua erabili, ez baitira egunerokoak. Beraz, lagin aleatorio sinplea erabiliz, urte bakoitzeko zazpi egun hartu dira analisirako.

Argia (84 item)¹⁸, *Berría* (164)¹⁹ eta *Goienaren*²⁰ (240) albisteekin osaturiko laginaren (guztira 488) azterketa diakronikoa egin da lehenengo. Eta euskarazko prentsan ere, 2013ko hiru asteetako papereko edizioa eta edizio digitalaren (82 itemeko lagina guztira) azterketa egin da. Guztira 570 item aztertu dira.

Jarraian agertzen dira, alde batetik, euskal prentsaren azterketa diakronikoaren eta sinkronikoen emaitzak. Eta bestetik, HGH taldeak aztertu dituen Europako bost kazeten emaitzekin egindako erkaketa.

5. Euskal hedabideei buruzko ikerketen emaitzak

5.1. *Argia*

5.1.1. *Argiaren* azterketa diakronikoa


Euskarazko prentsaren dekanoa da *Argia*. 1919an sortu zuen Iruñeko fraide kaputxino talde batek *Zeruko Argia* izenarekin, erlijio-gaiak jorrazteko hilabetekari gisa. Espainiako gerra zibilaren garaian desagertu eta 1954an berriro hasi ziren argitaratzen. Ostera izan zuen beste etenaldi bat, 1960-1963 bitartean, eta, berri-tuta hasi zen kaleratzen, informazio orokorreko aldizkari bihurtuta. Harrezkero, etenik gabe kaleratu da. 1980an izenez eta jabez aldatu zen, egungo *Argia* aste-kari informatibo bihurtuta. Gorabeheraz betetako ibilbide horretan, zentsuraren atzaparkadak, arazo ekonomikoak eta itxierak gairatu behar izan ditu egunotara heldu arte. 52 orri kaleratzen ditu *Argiak* egun eta Euskal Herri osoan banatzen da. Maila altua ematen dute *Argian* landuriko informazio-testuek. Europan erreferentziazkoa den prentsaren maila (Europako Prentsa, EuP) 5,39koa da, azterturiko euskal prentsaren batez bestekoa (EkP) (b/b) 5,07koa, eta *Argiarena* 6,23koa. Kontuan izan behar da *Argiaren* kasuan asteko albisterik garrantzitsuena bakarrik aztertu dela. Analizatu diren gainerako egunkari guztietan azalean agertzen den eguneko albiste nagusi horrek eman du baliorik altuena. Beste biek, berriz, —lehen orriko albiste nagusiaren garapenak eta tamainaz bigarren mailako albisteak— balio apalagoak lortzen dituzte gehienetan. Horrexek azaltzen du, gure ustez, *Argiaren* emaitza Europako prentsaren emaitzen gaintik egotea.

18. *Argian*, astekaria izanik, albiste garrantzitsuena soilik aztertu da.

19. *Berriak* ez du astelehenetan egunkaririk kaleratzen. Lehen orrian informazio nagusia fotoalbiste gisa lantzeko joera ere badauka. Horregatik *Berriari* dagokion lagina urteko 6 egunekoak izan da. Kontuan hartu behar da, 2003an *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik *Berriak* argia ikusi zuen arte 4 hilabete pasa zirela eta *Egunero* kaleratu zela epe horretan. Lan honetan *Egunero* egunkaria ere aztertu da.

20. Astean bitan ateratzen da *Goiena*, astelehenean eta ostiralean. Lan honetarako aukeratu den lagina ostiraleko edizioek osatzen dute.

1. grafikoa. *Argia* kalitate-indizea atalka banatuta (2001-2012).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Informazioaren hautaketan, 2,5 puntutik 1,64 lortu du *Argiak*. Euskal batez beste-koaren gainera eta europarraren azpitik dagoen balioa da hori. Indize horretan, *Argiak* informazioen gaurkotasuna du alderdirik ahulena (0,5etik 0,11), eta indartsuena, berriz, hautaturiko edukien albistegarratasuna (0,5etik 0,48). Gardentasun informatiboaren printzipioei dagokienez, esan daiteke informazioaren jatorriaren eta iturrien nortasunaren zehaztapenean balekoa dela *Argiaren* lana (bietan 0,3 puntu, 0,5etik). Azkenik, gertagarritasunean ere balio altua erakusten du (0,45 0,50etik) eta ondoriozta daiteke gertakariak direla informazioen oinarri eta ez adierazpen edo espekulazioak.

Edukien lanketan emaitza hobeak antzematen dira. Astekari bati dagokion moduan, sakontasunez eta zehaztasunez lantzen ditu informazioak eta hori indize horretan neurtutako aldagaietan ikus daiteke: informazioa osatzeko ikuspegi bat baino gehiago erabiltzen du, kazetaritza-estiloa argia eta zehatza da; hots, ondo irakurri eta ulertzen dena. Akats gutxi²¹ egiten du, bai tituluetan baita testuan bertan ere. Ikerlan honetan aztertu diren Europako egunkarien artean Alemaniako *Frankfurter Allgemeine Zeitung* bakarrik agertzen da edukien lanketan *Argiaren* gainera, 3,44ko balioarekin.


Gizarte-ekarpena indizean, *Argia* nabarmendu egiten da aztertutako hedabide guztien artean. Atal horretan neurtzen diren bost aldagaien artean prentsak berezkoa beharko lukeen agintearen kontrolaren funtzioa²² eta eztabaida publikoaren sustapena²³ dira astekariak erakusten dituen indargune nagusiak. Hortaz, interpreta daiteke pentsamendu kritikoa garatzen eta zabaltzen duen kazetaritza egiten saiatzen dela *Argia*.

21. Hitz bakarreko lerroena da akats ohikoena. Azterturiko testuen % 3,57k dute horrelakoren bat.

22. Aginteari kontrola aldagaian lor daitekeen emaitzarik altuena 0,5ekoa da eta *Argiak* batez beste 0,29 lortu du.

23. Eztabaida publikoaren sustapena aldagaian lor daitekeen gehieneko balioa 0,5ekoa da eta *Argiak* batez beste 0,4 lortu du.

2. grafikoa. Argiaren kalitate-indizearen bilakaera (2001-2012).




Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Hedabide gehien kasuan hauteman daitekeen moduan, *Argiak* ere kalitatean beherazko joera erakusten du ikerketa-epealdian. Datu horiek sei urtekoetan aztertuz gero, 6tik gorako balioak dira *Argiak* erakusten dituenak bere bilakaeran: lehenengo sei urtekoaren (2001-2006) batez besteko kalitate indizea 6,28 izan da, eta bigarren sei urtekoaren (2007-2012) batez bestekoa 6,19koa.

5.1.2. Argiaren azterketa sinkronikoa

3. grafikoa. Argia: paperezkoaren eta sarekoaren arteko alderaketa (2013).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Goiena eta *Le Monde* salbu, gainerako hedabideetan nabarmentzen den joera bera erakusten dute *Argiaren* emaitzek. Hots, papereko edizioak edizio digitalak baino kalitate hobea duela. Izan ere, *Argiaren* edizio digitalaren azterketa sinkronikoan aztertu diren informazioen % 31,82an akatsen bat aurkitu da.

Metodologian azaldu bezala, edizio digitaleko azaleko albiste nabarmenena aukeratu, jaso eta aztertu da, eta, biharamunean, egunkariak papereko edizioan

albiste berari eskaintako testua. Bata eta bestearen artean alderik nabarmenena erakusten duen hedabideen artean dago *Argia*²⁴ *El Pais*ekin²⁵ batera.

Aldizkari euskaldunaren kasuan esan daiteke, paperean, asteroko maiztasunak aukera handiagoa uzten diola informazioak hautatu eta denbora gehiagorekin, lasaitasun handiagoz, lantzeko. Edizio digitalean, ordea, Internetek eskatzen duen berehalakotasunari erantzuteko beharrak, denbora gutxiago uzten die kazetariei informazioak patxadaz hautatu eta lantzeko.


5.2. Euskaldunon Egunkaria-Berria

5.2.1. Berriaren azterketa diakronikoa

Euskaldunon Egunkaria 1990ean jaio zen, agerkari pribatu moduan, herri-ekimenak sustatuta. Euskarazko kazetaritzaren historian euskara hutsez kaleratu zen bigarren egunkaria izan zen, *Egunaren* ostean. Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epaileak, ETArekin lotura zuela frogatu nahian, 2003ko otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen. Biharamunean behin-behineko *Egunero* egunkaria kaleratu zuen *Egunkariako* lantaldeak eta 2003ko ekainaren 21ean iritsi zen kioskoetara *Berria*, euskarazko hirugarren egunkaria. Astelehenean ez da egunkari hau argitaratzen, baina gainerakoetan 48-52 orrialde izaten ditu.

Berriaren datuak dira Europako prentsaren multzoan bildu diren egunkarienekin egokien aldera daitezkeenak. Alde batetik, erabili den metodologia egunkarien analisisa egiteko diseinatuta dagoelako, eta bestetik, Europako prentsaz aztertu diren kazeta guztiak egunerokoak direlako.

4. grafikoan ikus daitekeenez, Europako prentsaren batez bestekotik 0,16 puntura gelditzen da *Berria*. Ikerketa honetarako aztertu diren bost egunkari europarren²⁶ artean aurretik ditu *Frankfurter Allgemeine Zeitung* 6,08 batez bestekoa-reakin eta *El País* 5,47koarekin.



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

24. Hirugarren grafikoan agertzen diren edizio digitalaren eta paperekoaren arteko aldea 1,24koa da.

25. *El País* egunkariako edizio digitalaren eta paperekoaren arteko aldea 1,41ekoa da.


26. Hurrenkera osoa honakoa da: FAZ (6,08), EP (5,47), *Berria* (5,23), LM (5,16), CDS (5,14) eta FT (5,12).

Albisteen hautaketa-prozesuari erreparatzen bazaio, Europako prentsaren batez bestekoaren azpitik kokatzen da *Berriaren* balioa, 0,08ko aldearekin. Indize horretan neurtzen diren bost aldagaien²⁷ artean, albistegarritasunean 0,43ko balioa lortu du eta gaurkotasunean 0,41ekoa. Gainerako hiru aldagaietan²⁸ balio baxuagoak erakusten ditu, nahiz eta Europako batez bestekotik ez den askorik urruntzen.

Lanketa-indizeari dagokionez, Europako prentsaren batez bestekotik 0,38 ehunen urruntzen da. Lanketa-prozesuan neurtzen diren sei aldagaien²⁹ artean, zehaztasunean 0,92ko balioa lortu du eta sakontasunean 0,62. Era berean, erabiltzen duen kazetaritza-estiloa egokia da, 1etik 0,70eko balioak erakusten duenez. Oro har, emaitza onak badira ere, tituluetan eta testuetan antzeman diren akatsek eta erabilitako informazio-elementu osagarrietan (argazki, infografiak) irudiaren sormena oso landua ez izateak lanketa-prozesuaren azken emaitza hain altua ez izatea dute ondorio.

Gizarte-ekarpenaren atalean, ordea, Europako prentsaren batez bestekoaren gainetik dago 0,31ko aldearekin. Europako kazeta erreferenteen artean puntuazio altuena duen *Le Monde* frantziarrari, 0,15ko tartea ateratzen dio egunkari euskaldunak. Herritarren ekarpenetatik sorturiko media izanik, logikoa dirudi gizarte-ekarpenari arreta berezia jartzea.

5. grafikoa. *E.Eg.-Berriaren* kalitate-indizearen bilakaera (2001-2012).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Berriak bere kalitate-indizea igotzea lortu du azken urteotan. Lehen sei urtekoaren batez bestekoa 5,20koa da, eta, bigarren sei urtekoarena, 5,26koa. Arestian aipatu bezala, aztertutako hedabideetan kalitatearen beherako joera

27. Gehienez aldagai bakoitzak 0,5eko balioa izan dezake.

28. Jatorriaren zehaztapena, batez bestekoa: 0,31; Iturrien nortasuna, batez bestekoa: 0,24; Gertaera, batez bestekoa: 0,29.


29. Atal honetan neurtzen dira zehaztasuna (gehienez 1); sakontasuna (gehienez 1); ikuspegi kopurua (gehienez 1); informazio-elementu osagarriak (gehienez 0,5); alde artistikoa (gehienez 0,5); kazetaritza-estiloa (gehienez 1).

orokorra antzematen da, baina Europako prentsan bi dira salbuespenak: *Frankfurter Allgemeine Zeitung alemaniarra*³⁰ eta *Le Monde*³¹. Beraz, ondoriozta daiteke, *Berriaren* bilakaera Europako prentsaren salbuespenen parean dagoela.

Berriaren bilakaeran 2004an beherakada handia nabaritzen da. Ezin da ahaztu, 2003an *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutela eta *Berria* martxan jarri arte lau hilabetez *Egunero* kaleratu zela. Itxierak suposatu zuen kolpearen ondoren, proiektu berri bat hasieratik aurrera ateratzeak eskatzen dituen indarra, esfortzua, giza baliabide eta baliabide ekonomikoaren xahuketa garrantzitsuak direla kontuan izanda, 2005, 2007 eta 2008 urteei dagokienez 5. grafikoan ikus daitezkeen emaitzak hobeto uler daitezke.

5.2.2. Berriaren azterketa sinkronikoa

6. grafikoa. *Berria*: paperezkoaren eta sarekoaren arteko alderaketa (2013).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Aurretik *Euskaldunon Egunkariak* ere izan zuen bere edizio digitala, baina *berria.info* 2003tik dago martxan, *Berriaren* sorreratik beretik. 2013an, *berria.info*k 5.486.478 bisita izan zituen urte osoan, batez beste hilean 457.206 bisita; horietatik 1.467.315 bisitari bakar³² izan zituen, alegia, hilean batez beste 122.276 bisitari bakar. Papereko irakurleak egunean 63.000 izan ziren, CIESen arabera.

Azterketa sinkronikoaren emaitzek erakusten dute, azterturiko hedabide gehienetan gertatzen den bezala, paperekoak sarekoak baino kalitate hobea duela. *Berriari* dagokionez, edizio digitalen eta paperekoaren artean dagoen 0,25eko aldea, aztertu diren gainerako hedabideetan³³ ematen denaren parean legoke, *El Pais* eta *Argia* salbu, zeinetan tartea handiagoa den. Aurrerago azalduko denez, *Goienan* eta *Le Monden* kontrako joera ikusten da: edizio digitalak biharamuneko papereko edizioak baino kalitatea hobea erakusten du.

30. Lehenengo sei urtekoan batez beste 5,82 eta bigarren sei urtekoan 6,34.

31. Lehenengo sei urtekoan batez beste 5,05 eta bigarren sei urtekoan 5,26.


32. *Berria.info* webgunean zenbat bisitari sartu diren adierazten du kontzeptu honek, gailu mota guztiak kontuan hartuta. Datu hauek google analytics-ek emanak dira.

33. FAZek 0,21eko aldea; CDSk 0,31ekoa; FTk 0,43koa; EPk 1,40; Argiak 1,24koa.

5.3. Goiena

5.3.1. Goienaren azterketa diakronikoa

7. grafikoa. Goiena kalitate-indizea atalka banatuta (2001-2012).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

2000ko ekainean Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba sortu zen, Debagoiena bailarako egitasmo multimedia bat kudeatzeko. «Komunikazio-taldean bildu ziren, alde batetik, Debagoieneko euskarazko tokiko hedabide ia guztiak eta horiek sostengatzen zituzten euskara-elkarteak (Idolaz, Antzuolan; Txirritola, Aramaion; AED, Arrasaten; Loramendi, Aretxabaletan; Jardun, Bergaran; Goibeko, Elgetan; Axtroki, Eskoriatzan; Laixan, Oñatin eta Gurel gurasoen elkarte, Leintz Gatzagan), eta, bestetik, ibarreko udalak» (Arana eta Zuberogotia, 2012: 72). 2000ko abenduaren 1ean, *Goienkaria* Debagoiena eskualdeko astekaria jaio zen eta 2001eko urriaren 19an bailarako aldizkariak *Goienkarian* bildu ziren hiru edizio ezberdin sortuz. 21.500 aleko tirada zuten. 2006an herrietako hiru edizioek bat egin zuten *Goienkariaren* atal bihurtuz. Azken aldaketa horren ondorioz, eskualdean 21.000 ale banatzen hasi ziren. 2004ko otsailetik aurrera, astelehenetan *Asteleheneko Goienkaria* kaleratzen hasi ziren: 5.000 ale banatzen ziren guztira, harpidetza bitartez eta kioskoko salmentetan. Arrasate eta Aretxabaletako telebistek bat egin zuten 2000ko maiatzean eta *GoiTB* Debagoiena eskualdeko telebista sortu zen. Multimedia-proiektua biribiltze aldera, Interneten *Sustatu.com* eta *Goiena.net* jarri ziren martxan, *Arrasate irratia* (udal-irratia) barne, Goienaren kudeaketa sarean baitago. Egun, proiektuaren euskarri guztiak *Goiena* markaren baitan biltzen dira.

Zazpigarren grafikoan ikusten denez, *Argia* eta *Berriarekin* alderatuz *Goienak* puntuazio baxuagoa lortu du. Kontuan hartu behar da ikerketan erabili den metodologia zorrotza egunkarietan kaleratzen diren informazio orokorreko albisteen kalitatea neurtzeko egina dela. *Goiena* astean birritan kaleratzen den argitalpena da eta tokian tokiko informazioa jorratzen du, beraz, erabilitako metodologiak eta

neurketa-sistemak ez dio *Goienari* mesederik egin. Izan ere, adierazle batzuetan ezin du egunkariek lortu ahal dituzten emaitzak erdietsi, bere tokiko izaeraren ondorioz. Eta horrelakoetan gertatu ohi den legez, faktore bat baino gehiago hartu behar dira kontuan emaitza ulertzeko.

Lehen atalean, hautaketa-prozesuan, 0,5etik 0,11ko puntuazioa dauka iturrien nortasuna neurtzen duen aldagaian. Izan ere, izen-abizenekin edo karguekin identifikaturiko iturriak erabiltzen ditu, eta, maiz, nahiz eta suma daitekeen iturria nor den, espresuki ez du iturria bera aipatzen. Astean birritan kaleratzen den argitalpena izanik, *Argiari* gertatu bezala, gaurkotasuna ez da indargunea *Goienaren* papereko edizioan, baina 0,5etik 0,24ko puntuazioa erdietsi du. Albistegaitasuna neurtzen duen aldagaian, 0,5etik 0,43ko balioa lortu du. Hau da, *Goienak* hautatzen dituen informazio gehienak gizarte osoarentzako ondorioak agertzen dituzten albisteak dira, norbanako, talde zehatz edota sosalbisteetatik urrunduz.


Lanketa-prozesuan, ahultasuna suma daiteke informazioaren sakontasunean eta informazioak garatzeko erabiltzen den ikuspegi kopuruan. Informazio gutxi doaz kazetaritzaren oinarrizko bost galderetatik (5W) harago. Hots, nola eta nondik galderei ez zaie normalean erantzuten. Informazio gehienak 4-5 galderen erantzunean geratzen dira, horregatik sakontasunaren aldagaiari ez zaio 0,19ko balioa baino aitortu (1 puntutik). Orobat, oso gutxitan sartzen ditu informazioa interpretatzeko bi ikuspegi baino gehiago. Gehienetan arrazoitutako ikuspegi bakarra erabiltzen du eta horrek azaltzen du 0,21eko balioan geratu izana (1 puntutik).

Kazetaritza-estilo egokia erabiltzen du *Goienak*, argia eta zehatza, lehen irakurketan ulertzen dena: 1etik 0,93ko balioa lortu du atal horretan. Baina, era berean, kazetaritzaren oinarrizko arauetatik urundu egiten da zenbaitetan. Titulu eta batez ere testuetan, *Goienan* maiz erabili ohi da lehenengo pertsona plurala. Kazetaritzaren oinarrizko arauen arabera, ezin da inoiz kazetaria protagonista izan eta kakotx artean ez bada, beti hirugarren pertsona erabiltzea aholkatzen da, baina, tokiko informazioaren gertutasuna dela-eta, *Goienako* kazetariak lehen pertsona plurala hainbatetan erabiltzen du. Joera hori gero eta arruntagoa bilakatu da ikusentzunezko hedabideetan ere, baina horrek ez du portaera hori zilegitzen.

Halaber, hainbat aldiz agertu izan da aditza iraganean tituluetan, eta tituluen arau orokorra da orainaldian idaztea. Ulertzekoa da zaila gertatzea tokiko kazetariari hiruzpalau egun atzerago gertatu den zerbait ostiraleko edizioan orainaldian azaltzea. Tituluan eta azpituluan hitz berberak errepikatzea ere akats gisa hartu da neurketa honetan eta horrelakoak ere agertu izan dira *Goienako* orri hainbatetan. Adierazpen zuzenetan konkordantzia-akatsak ere identifikatu dira. Horregatik guztiagatik, gainerako medio guztien balioetatik alden du da *Goiena*.

Gizarte-ekarpenaren atalean, beste bi euskal medioak ez bezala, *Goiena* balio apalagoetan geratu da. Aginteari kontrola eta eztabaida publikoa abiatzeko funtzioak ez dira apenas antzeman aztertutako itemetan, gehienetan albiste deskriptiboak izan direlako aztertu direnak, sakontasun handiegirik gabe landuak eta horretarako aukera eskaintzen ez zuten gaiak lantzen zituztenak. Hala ere, atal horretan nabarmendu behar da *Goienak* informazioak lortzeko eta plazaratzeko duintasuna bermatzen duela aztertu diren albiste gehienetan, 0,5etik 0,48ko balioa aitortu baitzaio.

8. grafikoa. *Goiena* kalitate-indizearen bilakaera (2001-2012).




Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Goienak, azterturiko hedabide gehienek bezala, kalitatean beherako joera erakusten du. Lehen sei urtekoaren batez bestekoa 3,84koa da, eta bigarrenean 3,69koa.

5.3.2. Goienaren azterketa sinkronikoa

9. grafikoa. *Goiena*: paperezkoaren eta sarekoaren arteko alderaketa (2013).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Papereko edizioan sarekoan baino balio altuagoa erakusten dute gainerako medio gehienek. *Le Monde*³⁴ eta *Goiena*³⁵ dira salbuespenak. Maiztasuna eta aukeratutako lagina dira *Goienaren* kasuan datu horiek ulertzeko arrazoiak. Alde batetik, astelehen eta ostiraletan papereko edizioak kaleratzen ditu *Goienak*. Edizio digitalean argia ikusten duten albisteak maiz ez dira asteko edizioetan agertzen garatuta, gaurkotasuna galdu dutelako edota, bestelako irizpide profesionalen

34. Sarean paperean baino 0,34 gehiago du.

35. Sarean paperean baino 0,42 gehiago du.

arabera, ez lantzea erabaki delako. Beste alde batetik, ikerketa honetan sareko eguneroko edizioak aztertu ondoren, eta azterketa diakronikorako erabilitako irizpide bera errespetatuz, edizio digitaletako papereko garapena ikusteko soilik ostiraleko *Goiena* begiratu eta aztertu da. Beraz, gehienetan gaurkotasun handia duten gaiak izanik edizio digitalekoak, ez dira garatu ia astebete geroagoko ostiraleko agerkarian. Horregatik edizio digitaleko itemak 21 dira eta aztertu diren papereko edizioak 3 baino ez.


Goienak Interneti eta taldearen multimedia-izaerari eman izan dion garrantzia kontuan hartuz gero, badira sareko eta paperekoen artean ezberdintasunak zenbait aldagaitan. Esaterako, gaurkotasunean 0,5etik 0,3ko balioa dauka sareko edizioak eta 0,17koa paperekoak. Era berean, informazio-elementu osagarrietan 0,5etik 0,2ko balioa du edizio digitalak eta 0,1ekoa paperekoak. Kasu horretan nabarmendu behar da edizio digitalean *Goienak* argazki-galeriak eta bideoak maiz erabili izan dituela eta gehienetan landuak eta egokiak izan direla. Testuan eta tituluetan akats gutxiago aurkitu dira sareko edizioan papereko edizioan baino. Esaterako, titulazioko akatsetan $-0,05$ ko batez bestekoa dauka sarekoak eta $-0,33$ koa paperekoak.

6. Euskal prentsaren eta prentsa europarraren arteko alderaketa

6.1. Euskal prentsaren eta Europako prentsa erreferentzialaren batez bestekoen alderaketa

Kalitate-indizeen bilakaera

10. grafikoa. EuP eta EkP: kalitate-indizeen bilakaera (2001-2012).




Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

10. grafikoan ageri denez, euskal prentsa azpitik kokatzen da kalitatean ikertutako 12 urteetan, nahiz eta joera, batean zein bestean, beherakoa den. Hala ere, ezin da ahaztu, aztertu den Europako kazetarik txikienak, *Le Monde*k, ia 300.000 ale argitaratzen dituela egunean; oster, *Argiak*, *Berriak* eta *Goienak*, hiruren artean, 50.000 ale kaleratzen dituzte. Hots, baliabide gutxiagorekin eta

hedapen askoz txikiagoarekin euskal prentsa 0,32 puntu kokatzen da Europako prentsaren azpitik. Seiurtekoei erreparaturaz gero, euskal prentsak izan duen jaitsiera leunagoa dela ere baieztatu daiteke. Lehen sei urtekoaren batez bestekoa 5,11koa izan da eta bigarren sei urtekoarena 5,04. Beraz, lehenengo seiurtekoetik bigarrenera 0,07ko jaitsiera izan du euskal prentsak. Europakoa, berriz, lehenengo sei urtekoan 5,53tik bigarren sei urtekoan 5,25era jaitsi da, 0,28ko aldea izanik. Hortaz, Europako prentsak hamarkada hasieran euskal prentsari ateratzen zion aldea txikitu egin da 2001-2012ko bigarren seiurtekoan.

Indizeak, ataletan zatikatuta

11. grafikoa. EkP eta EuPren indizeak atal ezberdinetan zatikatuta (2001-2012).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

Tradizio handiko prentsa europarrak Euskal Herriko prentsa gazteak baino emaitza hobekak lortu ditu hautaketa- eta lanketa-prozesuetan. Hautaketan 0,24 goitik agertzen da eta 0,37 gainetik albisteen lanketan.

Aldeak kontuan hartuta, euskal hedabideei zenbait atal hobetzea komeniko litzaieke: testuan eta titulazio-elementuetan agertzen den akats kopurua jaisten ahalegindu beharko lirake, esfortzu handiagoa egin beharko lukete informazioa modu sakonagoan aurkezteko. Hots, kazetaritzako oinarritzako bost galderei erantzuteaz gain, harago joateko ahalegina egin beharko lukete, *zergatik* eta *nola* galderen erantzunak eskainiz eta informazioak aurrekariarekin aurkeztuz. Sakontasunak, gehienez, puntu batekoa balioa du eta azpimarratu beharra dago Europako prentsaren batez bestekoa (0,63) eta euskal prentsarena (0,54) erditik gora kokatzen direla; hala ere, batzuek zein besteek gehienetan ez dute aurrekarietara jotzen informazioa testuinguratzeko. Era berean, informazioa interpretatzeko ikuspegi osagarri gehiago eskaintzeko saiakera egin beharko luke euskal prentsak. Aldagai horretan Europako prentsak 1 puntutik 0,5eko batez besteko balioa lortu du eta euskal prentsak 0,33.

Alabaina, kalitatea neurtzeko hirugarren indizea den gizarte-ekarpenaren atalean emaitza hobekak erdietsi ditu euskal prentsak Europakoarekin alderaturaz gero. Atal

hori osatzen duten aldagai guztietan euskal prentsak Europako prentsak baino balio altuagoak erakusten ditu. Hori azaltzeko gakoa izan daiteke, euskal hedabideak gertukoagoak izanik, ez soilik *Goiena* tokian tokikoa delako, bai *Berria* zein *Argia* ere, eta hizkuntz komunitate txikiago bati zuzenduta daudenez, errazago zaie gizarte-ekarpeneko aldagaiak hobeto lantzea. Gertatutasunak, era berean, gai batzuekiko sentsibilitate handiagoa izatea eskatzen du: duintasuna bermatzea, kultur aniztasunaren alde egitea eta bazterkeriari aurre egiteko jarrerak erakustea, besteak beste.


Aniztasuna

Europako prentsan gobernuaren informazioen protagonista nagusia % 28ko portzentajearekin. Europako artean, aurreikus zitekeen bezala, *Finacial Times* da salbuespen bakarra, bertan gehien azaltzen direnak eragile ekonomikoak baitira. Euskal hedabideetan hauteman daiteke gobernuari ematen zaion protagonismoa askoz baxuagoa dela: % 10eko portzentajearen agertzen dira agintariak protagonista gisa eta, aldiz, bestelako eragileak agertzen dira zerrendaburu. Datu horrek erakusten du euskal prentsak baduela joera handiagoa Europako erreferentziatzko prentsak baino distantzia hartzeko botereekiko.

Aniztasunaren ataleko protagonisten generoa eta bazterturiko taldeen presentzia aldagaietan oso balio baxuak erakusten dituzte kazeta guztiek oro har, batez ere emakumeen presentziari dagokionez. Hala ere, euskal prentsaren portzentajeak altuagoak dira Europako prentsarenak baino bi aldagai horietan. Euskal prentsan informazio-itimen % 6,5ean da emakumea protagonista eta % 8,9an bazterturiko talderen bat³⁶. Europako prentsan, ostera, % 4,2an da emakumea protagonista eta % 6,15ean bazterturiko talderen bat.

Sarerako jauzia

12. grafikoa. Paperezkoaren eta sarearen arteko alderaketa (2013).



Iturria: HGH Ikerketa Taldea.

36. Etorkinak, beste arrazak, bertako talde etniko gutxituak, ikuspegi feminista, lesbianak, homosexualak transexualak edo bisexualak, etab.

Orain arteko datuek agerian utzi dute euskal prentsaren kalitate-indizeak Europako prentsarenak baino baxuagoak direla oro har. Badago kontuan hartzeko datu bat, ordea: papereko ediziotik digitalera dagoen aldea euskal prentsan 0,36koa da eta Europako prentsak batetik bestera duen tartea 0,46koa. Aurreikus zitekeen baliabide urriagoak dituzten hedabideek zailtasun gehiago izango zituztela jauzi teknologiko hori emateko, baina ikerketa honen emaitzen arabera ez litzateke horrela interpretatu behar ezinbestean. Euskaraz diharduten hedabideek jauzi teknologikoa egiteko Europakoek besteko zailtasunak izan dituztela esan daiteke eta beren txikitasunean ez direla hain gaizki moldatu.

7. Ondorio nagusiak

1. Tamainaz eta tradizioz Europakoak baino txikiagoak dira euskal hedabideak, eta, hala ere, Europako hedabideek erakutsi duten kalitate-mailetatik oso gertu dabiltzala ikusi da ikerketa honetan. Aplikaturako metodologia zorrotzak 10etik 5,07ko batez besteko balioa esleitu dio euskal prentsari. Ikerketa-epe berean (2001-2012), Europako erreferentziazko bost egunkari garrantzitsuenek batez beste 5,39ko balioa erdietsi dute.

2. Euskal prentsak eta Europako erreferentziazko prentsaren kalitate-indizeek beheranzko joera agertzen dute 2001-2012 urtealdian. Ikerketa-epe osoa kontuan hartuta euskal prentsan dagoen beherakada batez beste 20 ehunenekoa da eta Europako prentsan 24 ehunenekoa. Datuak sei urteka aztertuz gero, batez beste euskal prentsak 7 ehuneneko egin du behera eta prentsa europarrak, berriz, 28 ehuneneko. Ikerketan aplikatu den metodoak ezartzen dituen tarteak oso zorrotzak eta neurtuak dira; beraz, kontuan hartzeko kopuruak direla esan daiteke eta aurrera begira joera aldatzea komeniko litzateke, une honetan horretarako zantzurik ikusten ez bada ere, ez batean ez bestean.

3. 2013ko papereko eta sareko euskarazko albisteen artean egindako alderaketan lortutako emaitzen arabera, baieztatu daiteke edizio inprimatuaren kalitatea sarekoa baino hobea dela. Alegia, idatzizko notiziak kalitatearen ikuspegitik hobeto eginda daude, sarean zabaltzen direnak baino. Europako ikerketan antzeko joera ikus daiteke. Hortaz, kasu bietan ondoriozta daiteke Internetek ezartzen duen erritmo azkar horrek informazioaren kalitatea kaltetzen duela. Berehalakotasunak presazko kazetaritza dakar eta horrekin batera arintasuna eta akatsak egiteko aukerak handitu egiten dira. Gauzak azkar eta ongi egiteak zaila dirudi; berehalakotasuna eta sakontasuna uztartzea bezainbeste.

4. Euskal hedabideen kalitate-indizeen neurketako emaitzetan ezberdintasunak izan dira, kazeta bakoitzaren izaera eta ezaugarri berezien ondorioz. Batzuen kasuan mesedegarria izan da; beste batzuenan, ordea, kaltegarria. *Argiak* 6,23ko balioa lortu du. Informazio orokorreko astekaria izanik, gaiak sakonago lantzeko aukerak eta, batez ere, formatu handiko albisteak soilik aztertu izanak ahalbidetu dute erdietsitako balioa. *Berriaren* kalitate-indizea 5,23koa da eta egunerokoa izanik erabilitako metodologia neurritan egindakoa da. Europako azterketan *Le Monde* (5,16) eta *El País* (5,47) kazeten artean legoke *Berria*. Kalitate-indize paretsuak dituzten arren, tamainaz, tradizioz eta ahalmen ekonomikoz hiru egunkari horien artean dauden aldeak handiak dira. Astean birritan plazaratzen den eta tokian tokiko informazioa ardatz duen *Goiena* agerkariaren kasua berezia da. Emaizta

apalagoa (3,77) erakusten du eta metodoak ez dio mesederik egin, arestian aipatu bezala, informazio orokorreko egunkarietan aplikatzeko metodologia zehatza eta zorrotza erabili baita. Bere ingurunean oso ongi txertatuta dagoen herri-agerkaria bada ere, neurtutako zenbait aldagaitan atera dituen emaitzak aztertuta, hobetzea komeniko litzaioke, aurkitu diren akatsak zuzentze aldera.

5. Ikerketa honetan azertu diren hiru euskal komunikabide horiek berezitasun bat dute Europako erreferentziako bost egunkariak ez dutena: hirurak herri-ekimenaren ondorioak izan dira; hau da, nazioartean *community media*³⁷ izenez definitzen den eredu horretatik oso gertu daude. Horregatik, Europako erreferentteek adina baliabide ez badute ere, hartzailengana iristeko duten gaitasuna handia da oso. Hizkuntza gutxiagotuan argitaratzen dira hirurak eta estaturik ez duen komunitate batean txertatuta daude. Beraz, komunikabide horiek, euskal gizartea eta bereziki, euskal hiztunen komunitatea kohesionatzeko duten ahalmen esanguratsua erakusten dute.

6. Albistearen hautaketa- eta lanketa-prozesuetan euskal hedabideek europarrak baino balio xumeagoak erakusten badituzte ere, ez da joera bera ikusten albistearen gizarte-ekarpenaren sailean. Atal horretan, euskal hedabideak europarrak baino 28 ehuneko gorago agertzen dira. Horrek erakusten du euskal hedabideek sentsibilitate berezia erakutsi dutela aginteari eragiten dioten gaiak modu zorrotzean lantzeko, eztabaida publikoa sustatzeko, pertsonen duintasuna bermatzeko, kultur aniztasuna agertzeko edota bazterketa soziala borrokatzeko. Ondorio gisa esan daiteke, hortaz, txikiek eta handiek badutela elkarri zer erakutsi eta irakatsi. Informazioaren kalitatearen inguruan gogoeta egitea ezinbestekoa da etorkizunari begira eta horrek ezinbestean profesioaren beraren hausnarketa egitea dakar: negozio-eredua birpentsatu, kazetarien lan-baldintzak hobetu, kazetarien gizarte-funtzioa sendotu, hartzailerekiko harremanak nolakoak diren erabaki edota teknologia berriak edukien eta kalitatearen onerako erabili, besteak beste.

Bibliografia

Arana, E.; Amezaga, J. eta Azpillaga, P. (2010): *Los medios de comunicación en euskara*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Arana, G. eta Zuberogoitia, A. (2012): "Goiena Komunikazio Taldea: tokiko talde multimedia baten kasu-azterketa", *Uztaro*, **83**, 71-90.

37. Zedarritzeko zailtasunak bizi du *Community Media* kontzeptua (Howley, 2010: 3): joan-etorri asko izan ditu, eta ditu, nork eta non definitzen duen. Alabaina, lan honetarako kontuan hartu ditugu Johnsonek (2007), laburtuta, esleitzen dizkion lau ezaugarri nagusiak; autorearen esana geure eginez, aztergai ditugun hedabideok beharbada ez dituzte denbora guztian eta era berean betetzen tasun guztiak. Hala ere, gure proposamenei erantzuten dieten neurrian, onartzen ditugu. Honako hauek dira lau ezaugarriok: «1.Localism: Community media are created primarily with and by residents of a specific geographic place. They explore local issues. They help define the places where we live and how relate to one another. They reflect local values and culture. (...) 2.Diverse Participation: They insist on the inclusion of diverse voices within the community, and their production and distribution processes emphasize community participation. (...) 3.Storytelling and Deliberation: ...community media organizations are assuming the role of conveners and authenticators of information sharing and dialogue... (...) 4.Empowerment: Community media institutions engage in empowerment in different ways. ... By enabling citizens to make and understand media, community media become a tool for personal, community, and ethnic expression and development» (2007: 3-4).

- Bucher, H. eta Altmeyden, K. (ed.) (2003): *Qualität im Journalismus: Grundlagen, Dimensionen, Praxismodelle*, Westdeutscher Verlag, Wiesbaden.
- CIES (2013): *Estudio de audiencia de medios de comunicación*.
- Díaz Noci J. (2012): *Historia del periodismo vasco (1600-2010)*, Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación-Eusko Ikaskuntza, 13, Donostia.
- García, M. M; Bezunartea, O. eta Rodríguez, I. (2013): "El Valor Agregado Periodístico, herramienta para el periodismo de calidad", in J. LL. Gomez; J. F. Gutierrez eta D. Palau, (2013), *La calidad periodística. Teorías, investigaciones y sugerencias profesionales*, Servei de Publicacions de la Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona.
- Gomez, J. LL. eta Palau, D. (2013): "El reto de la excelencia. Indicadores para medir calidad periodística", in J. LL.Gomez; J. F. Gutierrez eta D. Palau, (2013), *La calidad periodística. Teorías, investigaciones y sugerencias profesionales*. Servei de Publicacions de la Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona.
- Gz. Gorosarri, M. (2011): *Albisteen Kalitatea (Research on Basque Media's News Quality)*, Euskal Herriko Unibertsitatean defendatutako tesia, Leioa.
- Howley, K. (ed.) (2010): *Understanding Community Media*, Sage Publications, Londres.
- Johnson, F. (2007): *What's going on in Community Media*, Benton Foundation, Whashington.
- Maurer, T. (2005): *Fernsehnachrichten und Nachrichtenqualität: Eine Längsschnittstudie zur Nachrichtenentwicklung in Deutschland*. Reinhard Fischer, Munich.
- McQuail, D. (1992): *Media performance. Mass communication and the public interest*, Sage, Londres.
- O'Donnell, P. eta Mcknight, D. (2012): *Journalism at the speed of bytes. Australian newspapers in the 21st century*, University of Sydney, Department of Media and Communications, Sydney.
- Pellegrini, S. eta Múgica, M^a C. (2006): "Valor Agregado Periodístico (VAP): La Calidad Periodística como un factor productivo en un entorno medial complejo", *Palabra Clave* 9 (1) bol., 2006, 11-28
- Ramirez de la Piscina, T.; Gz. Gorosarri, M.; Aiestaran, A.; Zabalondo, B. eta Agirre, A. (2014): "Periodismo de calidad en tiempos de crisis: Un análisis de la evolución de la prensa europea de referencia (2001-2012)", *Revista Latina de Comunicación Social*, **69**.
- Schirmer, S. (2001): *Die Titelseiten-Aufmacher der BILD-Zeitung im Wandel: Eine Inhaltsanalyse unter Berücksichtigung von Merkmalen journalistischer Qualität*, Reinhard Fischer, Munich.
- Sustatu. (2012): "Hekimen sortu da, Euskal Hedabideen Elkarte", *Sustatu Interneteko albistegia*. 2012-11-21. Otsailaren 25ean kontsultatua: [<http://sustatu.com/1353487286>].
- Vehlow, B. (2006): *Qualität von Spätnachrichten-Sendungen*, Reinhard Fischer, Munich.
- Zabaleta, I. (1997): *Komunikazioaren eta ikerkuntzako metodologia*, Udako Euskal Unibersitatea. Bilbao.
- Zabaleta, I. et al. (2014). "European Minority Languages: Media and Journalism Framing their marginal reality", in *International Communication Gazette*.
- Zenbait autore. (2005): *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Saila, Bilbo.
- Zenbait autore (2013): *Euskal Hedabideen Etxea, tokikoen ikuspegitik*, Tokikom, Aretxabaleta.

